



Ekipoa	Biogarbitzailea
Kodea	B-2020
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - KOL kopurua % 80–90 murriz dezake. Aldi berean, amoniakoa % 80-95 murriz dezake. Horrenbestez, usainak, oro har, % 70–80 murriztuko lirateke. - Konposatu organiko lurrunkorrak biodegradatu egiten dira.
Honetan datza:	<p>Biogarbitzeta da gasak tratatzeko teknologia, tutueria-amaieran aplikatzen dena, usainak murrizteko. Teknologia horrek gasak garbitzeko bide hezea (xurgatzea) eta biodegradazioa nahasten ditu. Garbiketa-uretan esekita, mikroorganismo kopuru egokia dago, gasen osagai kaltegarriak oxidatzeko. Biogarbitzaileen bidez tratatzeko, honako baldintza hauek bete behar dituzte emisioek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondar-gasetako kutsatzaileak ingurune urtsuan disolbagarriak izan behar dira. - Bereizitako kutsatzaileak biodegradagarriak izan behar dute baldintza aerobikoetan. - Hondakin-gasen korrante nahiko jarraitua egon behar du. - Degradazio biologiko egonkorra bermatzeko, konduktibitatea 5000 $\mu\text{S}/\text{cm}$-koa izan behar da, gutxienez. - Lohien kontzentrazioa (materia lehorra) 15 g/l-tik beherakoa izan behar da. - 15–40 °C-ko tenperaturak (egokienak 30–35 °C-koak dira). - Presio atmosferikoa. <p>Bioerreaktorearen diseinuak lohi aktibatuen sistema bat edo lohien garraiatzaile bat du oinarri. Lohiez eta urez osatutako nahastura erreaktorera bidaltzen da. Xurgatutako poluitzaileak aktibazio-andeletan edo lohiek aireztatzeko tokietan degradatzen dira. Garbiketa-dorrea eta aktibazio-andelak diseinatzean, kontuan hartu behar da ukipen-denbora nahikoa eman behar dela, xurgatzea eta degradazio biologikoa gauzatzeko, hurrenez hurren. Erreferentzia gisa, segundo bat ukipen-denbora nahikoa izan daiteke lohiek xurgatzeko, baina, azken finean, eman beharreko denbora kutsatzaileen araberakoa izango da. Biogarbitzaileetan sarritan sartzen dira lohi aktiboak; esate baterako, lohi aktiboak, hondakin-urak biologikoki tratatzeko instalazio batetik ekarriak. Biogarbitzailearen errendimenduak maila egokia lortzeko aste batzuetako egokitzapena behar du. Egokitzapen-fase horren iraupena hondar-gasen konposizioaren araberakoa da. Hartzigailuetan prestatutako kulturak sartzen dira, batez ere, sufrea daukaten</p>



	<p>kutsatzaileak baldin badaude (merkaptanoak, hidrogeno sulfuroa, dimetilo sulfuroa eta abar) edota kloroa dutenak izanez gero (metano edo etano kloratuak).</p> <p>Biogarbitzailea da tutueria-amaieran KOLak (Konposatu Organiko Lurrunkorrak) eta usainak murrizteko teknika. Emisioen emariari eta konposizioari erreparatuta, emisio jarraituetan aplikatu daitezke. Hondakin-gasen emaria handia denean, eta kutsatzaileen karga txiki samarra (< 5 g/m³ hauts-partikula) ez da egokia; horrelakoetan, teknologia hobereana bioiragazkia da.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitezkeen	<p>Kanpoan geratzen dira IPPC jarduera guztiak, 117/2003 Errege Dekretua bete behar dutenak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen:</p> <ul style="list-style-type: none">- Nekazaritza (NACE 01).- Elikagaien industria (NACE 10).- Industria kimikoa (NACE 20).- Findegiak (NACE 24.5).- Konposta (NACE 38).- Hondakin-urak tratatzeko instalazioak hainbat sektoretan (NACE 37).